



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/01/24

Aldundiak "enkante publikoan" saldu gura dau Bilboko Eskuza kalean daukan eraikina

Foru Aldundiak, Jose Maria Eskuza kaleko 16an daukan eraikina "enkante publikoan" saltzeko dauen asmoaren barri emon dau gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan. José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako diputatuak, Batzarretako EH Bildu taldeak eskatu dauen agerraldian adierazo dauenez, "2014ko martian" ekipamendu aldaketea eskatu eutsan Bilboko Udalari, publikotik, etxebizitzakora pasetako, 2012. urtera arte Bizkaiko kirol federazioen egoitzea izandako higiezina saldu ahal izateko.

Aldundiko arduradunak azaldu dauenez, eraikina "ez da erabilten", kirol federazioen egoitzak Bizkaia pelotalekura erotea erabagi zanetik, pelotalekuko instalazioak "modernagoak" diralako. Kirol Etxearen egoitzea izandakoa "ez da erabilten, eta ez jako ezelango erabilerarik aurreikusten, ez daukalako Aldundiaren beharretara egokitutako ezaugarririk", esan dauenez. "Irisgarritasun arazo asko eta solairuen arteko mailen banaketa desegokia" dituan eraikina da. Eraikinak, 6 solairutan banatutako 2.300 metro karratuko azalera dauka.

Iruarrizagak autortu dauenez, obrei ekiteak "kostu handia izango leuke, eta helburu jakin barik egingo litzatekez", eta, hori dala eta, une honetan "karga bat" baino ez da Aldundiarentzat. "Ez deusku balio, zaharkituta dago, eta eraikinagaz egin daikegun gauzarik hoberena enkante publiko bitartez kitatzea da". Bizkaiko Foru Ogasuneko arduradunaren eretziz, "komenigarria" da salgai jarri orduko birkalifikazioa eskatzea, gaur egun daukanagaz –" ekipamendu publikoa"– beste Administrazioen baten egoitza moduan baino ezin daitekelako erabili. "Enkante bati begira erakargarriagoa da" higiezinak beste kalifikazio bat izatea.

Eraikinaren erabilera aldatzeko Aldundiak bideratu dauen eskaria Bilboko Udalak egin behar dauen barrikuspenaren zain dago, Udalak Bizkaiko uriburuko Uri Antolamenduko Plan Orokorren gaur egungo barrikuspenan sartu behar dauelako. Dokumentu hori "Aurrera egiteko" fasean dago.

Oposizinoako batzarretako taldeek Aldundiaren asmoen barri izan daben modua aurpegiratu deusie diputatuari "komunikabideen bitartez", eta, euren ustez guztiz argitu barik geratu diran hainbat galdera egin ditue, salmentaren prezioaren aurreikuspena, egon daitekezan diru-sarrera posibleak nora bideratuko diran, eta Aldundia erabileraren bategaz geratzeko aukerea. Erabagi horren oinarri diran azterlanen inguruan be galdetu dabe.

Iruarrizagak erantzun dauenez, eraikinaren erabilera etxebizitzara aldatzea "bat dator" Bilboko uri egituraren barruan daukan kokalekuagaz, Indautxu auzoan bertan, baina esan dau ez dakiela ze prezioan salduko dan, eta, hori dala eta, ezta salmentaren ondorioz egon daitekezan diru-sarrera posibleak nora bideratuko diran be. Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, Aldundiak bizkaitarren interesak "defendiduten ditu" holan. Batzarretako talde batzuk mahai gainean jarritako aukerea dala eta, Iruarrizagak esan dau higiezinak ez dauela balio Aldundiaren etxebizitza plana barrindartzeko edo Aldundiaren beste egoitza batzuk bertara eroteko. Horri jagokonez, Aldundiaren esku dagon "Perituetako" orubean, beharrezkoa bada, Aldundiak 20.000 metro karratu baino gehiagoko eraikina eregiteko aukerea daukala gogoratu dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ALDAKETAK TRIBUTUETAN

Beste alde batetik, Ekonomia eta Ogasuneko batzorde berean, Foru diputatuak, EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek eskatuta, Foru Aldundiak planteau dituan zergen arloko azken aldaketen barri emon dau. Holan, Bizkaiko arautegia Euskal Zuzenbide Zibilaren 5/2015 Legea egokitzeko Foru Arau Proiektuaren eta Bizkaiko Zergen inguruko arautegiaren alderdi batzuk aldatzeko Foru Arau Proiektuaren barrikuntza nagusiak azaldu ditu.

Lehenengo apustuak aldaketa “batez be teknikoak” sartzen ditu lurraldeko zerga sistemaren 6 foru arautan, baina horreek ez dabe “aldaketa garrantzitsurik” eragingo aurreko arautegiagaz alderatuta. Barrikuntzen artean, Iruarrizagak “dagozan modalidadeetan oinordekotzeari uko egiteko egungo eraginkortasuna daben ondorengotzako hitzarmenak zabaltzea; komisarioak oinordekotzearen ondasunen gainean dituan eskumenak zabaltzea, testamenturako gaitasuna indarrean dagon bitartean; eta komisarioei eta notarioei eta fede-emoile publikoei ezarritako informazio betebeharra zabaltzea” aitatu ditu.

Bizkaiko Zergen inguruko Arautegiaren alderdi batzuk aldatzeari jagokonez, Foru Arau proiektuak “tresna barriak” ezarten ditu “administrazinoko jarduketak tributuen aplikazioan daukan eraginkortasuna handitzeko” eta “iruzurraren kontra burruka egiteko neurriak indartzen” ditu.

Horri jagokonez, Iruarrizagak azpimarratu dauenez, barrikuntzetako bat, berak, diputatuak, “tributuen gaineko zehapen larriak” parkatzeko daukan gaitasuna, desagertu egingo dala da. Gaitasun hori Bizkaiko Batzar Nagusien eskuetan geratuko da, Foru Arau baten bitartez. Halaber, zergakaz erlazionautako arau hausteen atalean, beste kasu batzuk tipifikauko dira. “%20ko isuna, 60.000 eurokoa gitxienez” aplikauko jako “Ogasunak eskatzen dituan kontabilidadearen, liburuen eta erregistroen euskarri diran programak edo artxiboak “deuseztatzen, ezabatzen edo manipuletan dituan” pertsonari edo erakundeari. Zehapen hori, “programen edo artxiboen titularraz gain, programa informatikoa garatu edo aldatu dauen eta holan, deuseztatzean, ezabatzean edo manipulazioan lagundu dauen, pertsonak edo erakundeak be jaso daike”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
24/01/2017

La Diputación plantea vender en "subasta pública" su edificio de Escuza de Bilbao

La Diputación ha informado hoy a las Juntas Generales de Bizkaia de su intención de vender en "subasta pública" el edificio de su propiedad ubicado en el número 16 de la calle bilbaína José María Escuza. El diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, en una comparecencia solicitada por el grupo juntero de EH Bildu, ha comunicado que "en marzo de 2014" solicitó al Ayuntamiento de Bilbao el cambio de equipamiento, de público a uso residencial, para deshacerse del inmueble que hasta el año 2012 había sido sede de las federaciones deportivas de Bizkaia.

El responsable foral ha explicado que el edificio está "en desuso" desde que la institución foral decidiera trasladar las federaciones deportivas al frontón Bizkaia que cuenta con unas instalaciones "más modernas". La antigua sede de la Kirol Etxea está "en desuso y no está previsto ningún uso dado que no reúne las características adecuadas a las necesidades de la Diputación", ha dicho. Se trata de una construcción que presenta "numerosos problemas de accesibilidad con una distribución inadecuada de los niveles entre plantas". El edificio cuenta con una superficie de 2.300 metros cuadrados distribuidos en 6 plantas.

Iruarrizaga ha reconocido que acometer obras "supondría un elevado coste sin un objetivo concreto", lo que significa que actualmente suponga una "carga" para la Diputación. "No nos sirve, está obsoleto y lo mejor que podemos hacer con él es liquidarlo mediante una subasta pública". El responsable de la Hacienda foral vizcaína ha considerado "conveniente" que, antes de ponerlo en venta, se pidiera su recalificación, ya que con la actual - "equipamiento público"- sólo podría usarse como sede de alguna Administración. "Es más atractivo de cara a una subasta" que el inmueble disponga de otra calificación.

La solicitud cursada por la Diputación para cambiar el uso del edificio, está a la espera de revisión por parte del Ayuntamiento de Bilbao que debe encajarlo en la actual revisión del Plan General de Ordenación Urbana de la capital vizcaína, documento que se encuentra en fase de "elaboración del Avance".

Los grupos junteros de la oposición han afeado al diputado la manera de enterarse de las intenciones de la Diputación, "a través de los medios de comunicación" y han lanzado algunas cuestiones que quedaban según ellos sobre el alero, como una estimación del precio de venta, el destino de los posibles ingresos y la posibilidad de que la Diputación se quedara con algún uso. Han preguntado también por los estudios que sustentan tal decisión.

Iruarrizaga ha respondido que el cambio a uso residencial del edificio "está en coherencia" a su situación en el entramado urbano de Bilbao, en pleno barrio de Indautxu, pero ha negado conocer el precio de venta del inmueble y, por ende, el destino de los posibles ingresos por su venta. El responsable foral ha subrayado que la Diputación "defiende" así los intereses de los vizcaínos. Ante la posibilidad realizada por algunos grupos junteros, Iruarrizaga ha rechazado que el inmueble pueda servir para reactivar el plan foral de vivienda o para trasladar allí otras dependencias forales. En este sentido, ha recordado que, en el solar foral de "Peritos", la



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Diputación tiene la opción de construir un edificio de más de 20.000 metros cuadrados si llegara el caso.

CAMBIOS TRIBUTARIOS

Por otra parte, en la misma comisión de Economía y Hacienda, el diputado ha informado, a petición de EH Bildu y Podemos Bizkaia, de las últimas modificaciones tributarias planteadas por el Ejecutivo foral. En concreto, ha diseccionado las principales novedades del proyecto de Norma Foral que adapta la normativa vizcaína a la Ley 5/2015 de Derecho Civil Vasco y del proyecto de Norma Foral para reformar parcialmente la normativa General Tributaria de Bizkaia.

La primera apuesta introduce modificaciones, “eminentemente técnicas” en 6 normas forales del sistema tributario territorial que no suponen “un cambio radical” con respecto a la regulación anterior. Entre las novedades, Iruarrizaga ha destacado “la ampliación de los pactos sucesorios con eficacia de presente de la renuncia a la herencia en distintas modalidades; la ampliación de las facultades de disposición del comisario sobre los bienes de la herencia mientras se encuentre vigente el poder testatorio; y la extensión de las obligaciones de información impuestas al comisario y a notarios y fedatarios públicos”.

En cuanto a la reforma parcial de la normativa General Tributaria de Bizkaia, el proyecto de Norma Foral establece “nuevas herramientas” para “incrementar la eficacia de la actuación administrativa en la aplicación de los tributos” y “el reforzamiento de las medidas de lucha contra el fraude”.

En este sentido, Iruarrizaga ha destacado que una de las novedades será la eliminación de la facultad de él mismo para condonar “sanciones tributarias firmes”, potestad que recaerá en las Juntas Generales de Bizkaia a través de una Norma Foral.

Asimismo, en el capítulo de las infracciones tributarias, se tipifican nuevos casos. Se aplicará una multa “del 20%, con un mínimo de 60.000 euros”, a la persona o entidad que “destruya, borre o manipule” programas o archivos que sirvan de soporte a la contabilidad, libros y registros exigidos por Hacienda. La sanción podrá recaer “además de en el titular de los programas o archivos, en la persona o entidad que ha desarrollado o alterado el programa informático, colaborando en la destrucción, borrado o manipulación”.